

## **XXIII RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA**

*XXIII Rikardo Arregi Kazetaritza Saria* epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:


- *Mahaiburua*: Andoaingo alkate Estanislao Amutxastegi jauna, eta Petri Romero zinegotzia haren ordeko. (\*)
- *Mahaikideak*: Alazne Aiestaran, Allande Boutin, Odile Kruzeta, Joxe Rojas eta Arantxa Urretabizkaia.
- *Idazkaria*: Patxi Baztarrika.

Epaimahaiak ondorengo *azken erabakia* hartu du ahobatez.

### ***AZKEN ERABAKIA***

Bikaintasuna eta berrikuntza ipar orratz hartuta ahalegindu da Epaimahaia 2010eko maiatzetik 2011kora arte kazetariak euskaraz egin duten lana aztertu eta baloratzen, euskarazko kazetaritzan bikaintasuna eta etengabeko berrikuntza sustatzea baita Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburu nagusia.

Bada, nolana ere, sariei buruzko erabakiaren berri eman aurretik adierazi beharreko kontu bat, honakoa: Andoaingo Udalaren ordezkariak jakitera eman du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren aurtengo ekitaldi nagusiaren goiburua “Xabier Lete gogoan” izango dela, eta epaimahaikideek gogo onez eta pozik egin dute bat erabaki horrekin. Mahaikideen iritzian, zer egokiagorik poesian, kantagintzan eta oro har pentsamenduaren arloan nabarmendu zen Lete emankorraren ekarpen aberatsa eskertu eta aitortzea baino. Gogoratu behar baita, baloraziozko kazetaritzan ere ale ugari eta bikainak utzi zituela Urrietako oiartzuarrak.



Sariei buruzko erabakiari dagokionez, pozik azpimarratzen du Epaimahaiak ez zaiola batere erraza izan sari-atal bakoitzeko irabazlea aukeratzea. Ez da zalantzarik ondo irabazia dutela saridunek saria, baina, esan behar da asko direla euskarri ezberdinetan maila goreneko kazetaritza euskaraz egiten dutenak. Zorionak, beraz, irabazleei, baina eskerrik asko, bene-benetan, epaimahaiaren lana zaildu duten kazetari guztiei.

Hona, jarraian, epaimahaiaren erabakiak:

### ***1. Ohorezko Aipamena***


Erraz eta berehala hartu du epaimahaiak aurtengo Ohorezko Aipamenari buruzko erabakia. Izan ere, saritutakoei, beren traiektoriaren argitan, ezbairik gabe zor baitzaie euskarazko komunikazioan jarduteak irabazirik batere ez eta buruhauste galantak eragiten zituen garaietan erein zuten haziagatik eta garatu zuten aitzindaritzagatik gu guztion aitormena.

Miren Jone Azurza eta Ignazio Arregi dira XXIII Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako Ohorezko Aipamena jasoko dutenak.

Arrazoi asko metatu ditu Epaimahaiak Ignazio Arregi eta Miren Jone Azurza Ohorezko Aipamenaren jabe egitearen alde, eta horiek guztiak esaldi honek laburbiltzen ditu: euskarazko kazetaritza modernoaren zutoinen eraikuntzaren aitzindari izan dira Azurza eta Arregi, prentsa idatzian eta irratigintzan zehatz esanda.

60 eta 70eko hamarraldietan jarri ziren euskarazko kazetaritza modernoaren zutoin nagusiak. Garai hartan, euskarazko kazetaritzak, baserri-girotik hiri- giroako pausoa eman zuen, baserri-giroa alboratu gabe. Ibilbide hori egiteari batez ere Zeruko Argiaren eskutik ekin zitzaion.

Zeruko Argia arnasberrituaren orrialdeetan han ziren gerora euskal kulturaren bide oparoa egin duten asko eta asko, tartean Rikardo Arregi bera. Guztien buru, sustatzaile eta aitzindari, Miren Jone Azurza. Miren Joneren ekina eta buruargitasuna ezinbesteko



akuilu izan ziren euskal kazetaritzan garai hartan egin ziren aldaketak eragiterakoan, besteak beste informazio-kazetaritzari ateak irekitzerakoan. 1969tik 1975era bitartean izan zen Miren Jone Azurza Zeruko Argiaren zuzendari. Hona, Miren Jone zuzendari zela, 1970ean, Zeruko Argiaren 400. zenbakian, zenbaki berezian, euskarazko aldizkarietan aldizkari zenak bere buruaz zioena, hain zuzen ere irekitasunaren eta bide berrien urratzaile eta modernitatearen bilatzaile izaeraren erakusle diren hitzok: *“euskaldun desberdinentzat egiten da: sinestun eta sinesgabe, ezkertiar eta eskuindar, aurrerakoi eta atzerakoi, baserritar eta kaletar, jakitun eta ezjakin, zahar eta gazte, hemengo eta mugaz handiko (...) Zeruko Argiak oso irekia, talde jakin bati lotu gabea eta lotan daudenen esnalea izan nahi du. Euskal iritzi eta jokabideetan dabiltzan guztientzat irekia. Idazle eta irakurle, denon artean egingo dugu Zeruko Argia bizi, gaurko, ireki. Esnatzaile eta euskalduna”*.

Ignazio Arregiren ekarpena eta aitzindaritza irratigintzari lotua da. Aipatutako garaian prentsa idatziarekin batera irratia zen euskal kazetaritzaren kabi eta emisore. Orduko euskal irratia esateak Loiolako Herri Irratia hizki handiz eta lodiz idaztea eskatzen du nahitaez. Bost mila herritarrek hilero hilero Loiolako Herri Irratiari harpidedun-kuota ordaintzen zioten. Era guztietako kazetaritza egiten zuten euskaraz, denbora pasarako tarteak bezala informazio saioak ere. Ignazio Arregi 1965ean hasi zen esatari lanetan Loiolako Herri Irratian, eta bertan jardun zuen 1982 arte. Azken lau urteetan gainera, 1978tik 1982rarte alegia, zuzendari izan zen. Euskarazko irratigintzaren zuzia bizirik mantentzeko hil edo bizikoak izan ziren urte haietan egindako lan eskerga ez ezik, nabarmendu beharrekoa da, gainera, Ignazio Arregik geroago egindako lana ere. 1982ko abendutik 1985 bitartean “Eusko Irratia, Radiodifusión Vasca” Sozietate Anonimo Publikoaren administratzaile eta zuzendari izan zen. Haiak izan ziren euskararentzat berarentzat, euskal hiztunentzat eta euskarazko kazetaritzarentzat punta-puntako arnagunea izan den eta den Euskadi Irratiaren oinarriak finkatu ziren urteak, euskarazko hizkera periodistiko baliagarria berariaz sortu duen Irratiaren zimenduak eraiki ziren urteak. Eta horretan Ignazio Arregi aitzindari.

Euskarazko kazetaritza modernoaren zutoinen eraikitzaile eta bide berrien bilaketan aitzindari izan zaretelako, zuei bioi, beraz, Ignazio Arregi eta Miren Jone Azurzari, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren XXIII. edizioko Ohorezko Aipamena.

**2. Kazetari berria ataleko saria,** kazetaritza munduan lehen urratsak egiten ari direnak gogoan hartuta ematen den saria: 27 urte edo gutxiago dituztenek bakarrik duten lanak aurkeztu eta saria jasotzeko aukera.

Aurtengoan elkarrizketak eta erreportajeak dira atal honetan saritutakoak. Saritutako lanen argitan irabazleak sariaren jabe izateko dituen merezimenduen artean, honako hauek nabarmendu nahi ditu Epaimahaiak:

- Elkarrizketa freskoak, irakurketa atseginekoak eta ausartak egin ditu saridunak. Ez du arriskurik saihesten, interpretazio propioak ere egiten ditu, eta, nolana ere, gaiekiko distantzia hartzen asmatu du, gaiak zenbaitetan oso labankorrak badira ere.
- Elkarrizketatuari zukua ateratzen badakiela erakutsi du, eta elkarrizketak aberasten dituzten hainbat gehigarri baliatu ditu elkarrizketatuaren nortasunaren berri adierazteko.
- Alde grafikoa ere bikain zaindu du.


Sariduna: Igone Fernandez Mariezkurrena.

Saritutako lana: 2010eko ekainetik 2011ko maiatzera bitartean Gaztezulo aldizkarian argitaratu dituen 11 elkarrizketa eta bi erreportaje. (\*\*)

Saria: 3.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

### **3. Epaimahaiaren Sari Berezia**

Epaimahaiak sari hau erabakitzeko aurtengoan kontuan hartu duen irizpidea izan da, ikerketari hertsiki loturiko kazetaritzaren adibide ona izatea saritutako lana. Saritutako idazlana bete betean lotzen zaio irizpide horri, eta honako hauek dira Epaimahaiak nabarmendu nahi dituen arrazoiak:



- Gaur eguneko kazetaritza, oro har, berehalakotasunaren menpe dago ia erabat; jarduera horretan ere preziatua bezain eskasa da denbora. Garaiotan oso urria da egunerokotasunetik haratago doan ikerketa-kazetaritza, nahiz eta kazetaritzaren funtzio soziala eraginkortasunez betetzeko behar-beharrezkoa izan ildo hori. Merezimendu osoz kokatzen da kazetaritza mota horretan saritutako lana.
- Luzea da, baina irakurtzeko arina, behin hasiz gero bukatu gabe utzi ezin den horietakoa. Denboran aski hurbilekoa den gai bat -gai zail eta garratza- du aztergai erreportajeak. Egileak, halere, jakin du distantzia hartzen.
- Kazetaritza beste diziplina batzuekin uztartzen jakin du egileak, zehazki eta batez ere historiarekin, erreportajearen zorrotasunaren mesedean.
- Iturri asko landu ondorengo lana da, lekukotasun ugari eta erabakiorrak jasotzen dituen; oso ongi dokumentatua, beraz.

Sariduna: Ainhoa Oiartzabal


Saritutako lana: *Nork hil zuen Begoña Urroz?* izenburua duen erreportajea, 2011ko otsailaren 20an *Berrian (Igandea* gehigarrian) argitaratua.

Saria: 4.000 euro eta diploma.


#### **4. Sari Nagusia**

Kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna: horra Sari Nagusia erabakitzerakoan Epaimahaiak aintzat hartu dituen irizpideak.

Tokiko hedabide multimedia batek irabazi du Sari Nagusia. Hamar urteko prozesu arrakastatsuen ondoren, 2010eko urrian gauzatutako ekimena da Epaimahaiak saritu duena: sarea ardatz hartuta euskarri ezberdinak –paperekoa, telebista, irratia, webgunea- hedabide multimedia integral batean modu bateratuan hezuramitzeko eta Interneteko webgunea berri eta egoera berrira egokitzeko helburuarekin gauzatutako ekimena, hain zuzen ere. Goienera Komunikazio Taldea da sariduna, eta ondorengoak dira epaimahaikideek nabarmendu nahi dituzten merezimenduak:



- Badira hamar urte hain zuzen ere *bertakotasuna* arrakastaz lantzeko baldintzetariko bat *bertakokeriak* alboratu eta inertziak gainditzea zela ohartu eta eskualde mailako hedabidea sortu zutela Debagoienan, zortzi herritako hedabideak bakar batean bateratuz.
- Goienak hamar urteotan agerian utzi du kalitatea eta berrikuntza direla edozein hedabideren, eta bereziki euskarazkoen, garapenerako nahitaez bete beharreko baldintza nagusia. Kalitatea eta berrikuntza edukietan bezala produktuaren diseinu eta estetikan ere, kalitatea eta berrikuntza etengabeko jarrera gisan hartuta.
- Jarrera horren eraginez, 2010eko urrian hasita goitik behera aldatu du webgunea, eta euskarri ezberdinetako hedabideen konbergentzia gauzatu du sarea protagonista nagusi dela. Lan-talde bakarreko erredakzio bateratua antolatu du. Horri esker, esaterako, joan zen maiatzeko hauteskunde egunean hiru hedabideetarako egin zuen lan Goienak: sarerako, telebistarako eta biharamuneko papererako. Hauteskunde biharamunean 7.425 *bisitari bakar* izan zituen webgune eraberrituak.
- Lan pozesuetan aldaketak gauzatu dituzte 2010eko urritik aurrera. Irudia eta marka bateratzeaz gain, mundu mailako hedabide talde garrantzitsuenen ereduarekin egiten dute lan. Erredakzio bateratu eta bakarretik elikatzen dituzte kazetari/komunikatzaile multimediek lau hedabide: Goiena papera, telebista, *.net* eta Arrasate irratia. Kazetari guzti-guztiak dira sareleri eta sarea dute ardatz den-denek.
- Egokia da sareko edukien antolaketa berria: garbia, azkarra eta nabigatzeko erraza. Eredu eta hizkera propioz ematen dira sareko edukiak, beste euskarrietakoen kopia mimetikoetan erori gabe.
- Kalitatea eta berrikuntza nolako, kontsumitzaileen erantzuna halako! Sarearen *erabiltzaile bakarrak* etengabe handitzen ari dira: 2011ko urtarriletik maiatza bitarte izandako erabiltzaile bakarrak %31 handitu dira 2010 urteko hilabete-tarte berarekin alderatuta, eta %50,8 2009rekiko. *Goiena.net*-ek gaur egun 4.000 *erabiltzaile bakar* ditu egunero.



- Edukiak, antolaketa, diseinua: dena da berri-berria, eta gero eta euskaldun gehiagoren komunikazio-beharrak asetzeko bidean asmatzen ari da audientzia-datuaren argitan.
- Tokiko hedabideetatik harantzago da baliagarri eta eredugarri Goiena Komunikazio Taldearen ibilbidea, eta ibilbide horretan mugarri da 2010eko urrian gauzatutako urratsa. Esaldi bakar batean laburbilduz, esango genuke, “pausu bat aurretik doaz beti”.

Sariduna: Goiena Komunikazio Taldea, 2010eko urrian Sarean egindako berrikuntzagatik eta hedabide multimedia integrala eta integratua antolatzeagatik.


Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

Aipatutako sariei buruzko erabakiak hartzeaz gain, epaimahaiak eskura du *Aitormen Berezia* egiteko aukera ere, eta aurtengoan aukera hori baliatzea erabaki du. Kazetaritza Saria den honetan paradoxikoa lirudikeen arren, kazetaritzari hertsiki lotzen ez zaion ekimen baten *Aitormena* egitea erabaki du Epaimahaiak, “Xabier Lete gogoan” hartu duen XXIII. edizio honetan. Euskarazko komunikazioari orokorrean begiratuta euskal kulturgintzan umotu berri den ekimen baten *Aitormena* da Epaimahaiak dakarrena.

### **5. *Aitormen berezia***

Zenbait arlotan abiadura handian indartu da euskara azken hamarraldiotan. Garabide bikaina izan duen eremuetako bat literaturarena da, ezbairik gabe.

Bada aldizkari bat, espezializatua, literaturaren lekuko dena eta, aldi berean, euskal literaturgintza bera eta literaturgileak ere aberasten dituena. Aldizkari espezializatu hori da aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian *Aitormen Berezia* hartuko duena: ERLEA aldizkaria.



Gaztea da –bi urte eta lau zenbaki baino ez ditu-, baina jadanik betirako erreferentzia bihurtu zaigu. Literaturaren gainean sekula izan dugun aldizkaririk aberats eta dotoreena da. Literaturazale guztientzako gozagarriz beteriko opari oparoa. Idazleek beren idazlanetan azaltzen ez dituzten jakingarri ugari ezagutzeko balio du, eta euskal literaturako ahots asko biltzen jakin du. Genero eta idazle askotarikoak bikain lotzen ditu euskal literaturaren uztarrarian, eta *bertakokeriarik* gabe. Euskal literaturak behar zuen, erdietsi duen maila altua kontuan harturik, maila goreneko aldizkari bat, nazioarteko onenen parekoa, alde grafikoa ere bikain zaintzen duena. Bertako eta inguruko literaturgintzarako ez ezik, munduko edozein herrialdetako literaturetarako eredugarri dena. Hori da, bistan da, *Erlea* aldizkaria, Bernardo Atxagak zuzentzen eta Euskaltzaindiak argitaratzen duena.

*Aitormen Berezia*, beraz, *Erlea* aldizkariarentzako.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiek sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamaikako ekainaren batean.

Estanislao Amutxastegi  
(ordezkoa: Petri Romero)

Alazne Aiestaran

Allande Boutin

Odile Kruzeta

Joxe Rojas

Arantxa Urretabizkaia

Patxi Baztarrika





(\*) 2011ko ekainaren 11 arte izan da Andoaingo alkate Estanislao Amutxastegi jauna, eta, hortaz, XXIII Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahai buru, eta bere ordezkari Petri Romero zinegotzia (Tokiko Gobernu Batzarrak 2011-01-28an hartutako erabakia).

(\*\*) Hauek dira *Kazetari Berria* atalean saritutako elkarrizketa eta erreportajeak, *Gaztezulo* aldizkarian argitaratuak:

- Marta Matzir-i elkarrizketa. 2010eko ekaina.
- Ion Areitio-ri elkarrizketa. 2010eko uztaila.
- Bebe-ri elkarrizketa. 2010eko urria.
- Kilian Jornet-i elkarrizketa. 2010eko urria.
- Gorka Urbizu-ri emandako I. GAZTEZULO SARIAREN kariatara osatutako bideo-erreportajea. 2010eko azaroa.
- Aiora Zulaika-ri elkarrizketa. 2010eko azaroa.
- Karlos Osinaga "Txap"-i elkarrizketa. 2010eko abendua.
- Asel Luzarraga-ri elkarrizketa. 2010eko abendua.
- Izibene Oñederra-ri elkarrizketa. 2011ko urtarrila.
- Asisko Urmeneta eta Mikel Urmeneta anaiei elkarrizketa. 2011ko otsaila.
- Prostituzioari buruzko erreportajea. 2011ko martxoa.
- Marina "Canillas"-i elkarrizketa. 2011ko apirila.
- Alberto Iñurrategi-ri elkarrizketa. 2011ko maiatza.